

# OSAKIDETZA EUSKALDUNTZEKO PLAN ESTRATEGIKOA *PROPOSAMENAK*





Euskararen normalizazio prozesuan Osakidetza bezalako zerbitzuen euskalduntzea garrantzitsua da oso, batetik egunero milaka herritarrek erabiltzen duten oinarrizko zerbitzua delako eta bestetik bertan milaka langilek lan egiten dutelako (ez dugu ahaztu behar Euskal herriko enpresa handienetakoa dela, handiena ez bada). Bi ezaugarri horiek egiten dute berezi Osakidetza eta bi ezaugarri horiek bilakatzen dute lehentasunezko euskararen normalizazio prozesu orokorrean.

Osakidetzak berak egindako ebaluazioan ikus daitekeenez, lehen plan honek ez du Osakidetzan euskara normalizatzerik lortu. Hori horrela izatearen gabezi nabarmenen artean, honakoak aipa daitezke:

- Plana bera oso berandu jarri zen abian, Osakidetzaren beraren egitura eta langileria egonkortua zegoenean, horrek suposatzen duen guztiarekin (lan deialdietan euskara eskatzeko edota langileak euskalduntzeko urte galduak)
- Langileen gehiengoari euskara ikasi beharrik ez izateko aukera zabalik utzi zien, euskara ikasteko salbuespen adina 45 urtetik gora kokatuz. Honela, 2003-2007 tartean 5.000 langile baino gehiago euskara gaitasuna egiaztatu behar izatetik salbuetsita geratu ziren.
- Hizkuntza-eskakizuna lanpostu guztiei ezarri arren, euskara gaitasuna egiaztatu beharra (derrigortasun-data) oso lanpostu gutxiri ezarri zitzaien (%15ari baino ez). Derrigortasun-data zuten lanpostu horietako asko gainera euskaldunek betetzen zituzten (lanpostuen %44ri plana abian jarri zeneko derrigortasun-data ezarri zitzaien). Alegia, derrigortasun-data euskaraz ez zekiten langileei ezarri ordez jada euskaraz bazekitenei jarri zitzaien, langileak euskara ikastera bultzatu beharrean, planaren etorkizuneko betetze maila bermaturik izatea hobetsiz.
- Derrigortasun-tasa erabakitzeko unean, administrazioa euskalduntzeko beste plangintzetan ez bezala, Osakidetzako planean ez zen EAEko euskararen ezagutzatasa kontuan hartu. Garai hartan EAEko ezagutza-tasa %43,9koa zen (euskaldunak + ia-euskaldunak/2) eta beste plangintzetan egin bezala, Osakidetzan ere erreferentzia hori erabili izan balitz, derrigortasun-tasa %15ekoa izan beharrean %43,9ekoa izango zen eta ondorioz euskara gaitasuna data jakin baterako egiaztatu beharra 3.500 langileri eskatu ordez, 9.900 langileri eskatuko zitzaien.
- Kontratazio berrietan langile erdaldunak kontratatzeke aukera zabalik utzi zen. Langile berri guztiei EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza nahikoa eskatu beharrean, euskara gaitasuna lan deialdiko puntuen %5 eta %20 tartean puntuatu zen.



Lehen plan honen emaitzak espero zitezkeenak dira eta Osakidetzan euskarak normalizatu gabe jarraitzen du. Izan ere, gutxiagotutako edozein hizkuntza berreskuratu eta normalizatzeko funtsezkoak dira hiru elementu edo osagai:

- Hizkuntzaren normalizazio prozesuari oinarria, babesa eta iraunkortasuna emango dioten arauak.
- Normalizazio prozesuak aurrera egiten duela bermatuko duten plangintzak, helburu eta epe zehatzak dituzten plangintzak.
- Normalizazio prozesua gidatuko duten plangintza horiek garatzeko baliabide nahikoak (ekonomikoak, pertsonal mailakoak zein administratiboak)

Administrazioei hiru elementu horiek barnebilduko dituen hizkuntza-politikak garatzea dagokie baina bada laugarren elementu bat oso garrantzitsua dena eta ahaztea komeni ez dena: herri gogoia. Osasun zerbitzuak euskaldundu nahi badira, mediku, telefonista, pediatra, zainzaile, espezialista, erizain, administrari... euskaldunak eskatuko dituzten herritarrak behar dira, ezinbestean. Eskari hori gabe, herritarren presio eta eragin hori gabe ez dago aurrera egiterik, edo ez behintzat prozesuak behar duen abiadura eta eraginkortasunez. Euskaraz bizi nahi duen masa kritiko hori gabe gainerakoak ez du aurrera egingo, profesional euskaldunek ez dute euskaraz egingo, euskalduntzen diren langileek ez diote beren ahaleginari zentzurik ikusiko eta abar.

## Corpus juridikoa

---

Araudiari dagokionez, ez da nahikoa euskararen normalizazioa erdietsi nahi badugu. Euskararen legeak herritarrei euskaraz artatuak izateko eskubidea aitortzen die baina beste arau batzuek (Funtzio publikoaren legeak edota Osakidetzako euskara plana arautzen duen dekretuak) ez dute eskubide hori bermatzeko neurririk ezartzen, aitzitik, eskubide horien urraketa betikotzeko atea zabaltzen dute, besteak beste, langile erdaldunen kontratazioa ahalbidetuz.

Ondorioz, Osakidetzaren euskalduntzea helburu duen plan orok, eraginkorra izan nahi badu, lehenik eta behin arau horien aldaketa bilatu behar du, herritarrek Osakidetzan euskaraz artatuak izateko duten eskubidea bermatuz.

## Plangintzak

---

Epe erdi-luzerako plangintza da behar dena, Osakidetzako langile eta zerbitzu guztiak euskaldunduko dituen plangintza bat, 15 edo 20 urteko plangintza estrategiko bat, bost urteko plangintzak barnebiltzen dituena.

Honela, bost urteko plangintza bakoitzaren amaieran tarteko helburuak ezarri beharko dira eta 5 urteko plangintza bakoitzean arau eta neurri ausartagoak ezartzen joan, hainbestetan aipatzen den progresibotasuna benetakoa izan dadin eta prozesuak *in aeternum* luza ez daitezten.



## Baliabideak

Orain arte euskara ikasten ari diren langileen ordezkapenak betetzera bideratu da baliabide ekonomiko gehien eta horretan jarraitu behar da jada lanean ari diren eta euskaraz ez dakiten langile guztiak euskaldundu arte. Era berean, euskara ikasi behar duten langileei egiteko hori ahalik eta gehien errazteko neurriak hartu behar dira (ordutegiaren bidez, pizgarriekin, egindako ahalegina aitortuz...).

Dena dela, une jakin batean langile berri erdaldunak kontratatzeari utzi behar zaio. Ebaluazio berak aipatzen du zentzugabea dela langile erdaldunak kontratatzen jarraitzea gero langile horiek euskalduntzen sekulako ahalegina egin beharko dela jakinda (ordezkapenak, ikastaroak, irakasleak...). Aukeran, hobe baliabide horiek Osakidetzan euskara normalizatzeko beste egiteko batzuetara bideratzen badira.

Horiek orokorrean kontuan hartu beharreko neurriak. Oinarrizko zerbitzu publiko batean hizkuntza gutxiagotua normalizatzeko neurriak dagokienez, plangintzaldi berriak ondorengo lan-ardatzak jaso beharko lituzke. Lan-ardatz hauek osotasun bat egituratzen dute eta ezinbestekoa da guztiak modu orekatuan garatzea, bestela normalizazio prozesua lekuren batetik herren ariko baita. Ikusiko duzuenek, lan-ardatz horietako batzuetan, berauek garatzeko aintzat hartu beharreko neurri xeheagoak ere jaso dira:

## Langileen kontratazioa

Bada, 15 edo 20 urteko epean osakidetzako langile eta zerbitzu guztiak euskaldunak izatea nahi badugu kontratazio-politikan aldaketak egin behar dira. Ez du zentzurik langileak euskalduntzera baliabide garrantzitsuak bideratzen diren bitartean langile berri ez-euskaldunak kontratatzen jarraitzeak. Ate hori itxi beharra dago, bestela langileen euskalduntzea ez da sekula bukatuko eta herritarren eskubideen urraketa betikotu egingo da.

Prozesua graduala izan daiteke, alegia, hurrengo 5 urtetarako plangintzan lan-deialdian euskara balioztatzeke merituen sistemarekin jarraitu daiteke, baina puntuazioen tartea %5 eta %20 artekoa izan beharrean %15 eta %20ekoa izan daiteke. Hurrengo 5 urteko plangintzan jada merituen sistema bertan behera utzi daiteke eta lanpostu guztietan EAEko bi hizkuntza ofizialen ezagutza eskatu, alegia, gutxienez B2 maila. Osakidetzako lehen hizkuntza eskakizunak euskara erabiltzeko gaitasun nahikoa bermatzen ez duenez, gutxienezko maila B2 mailan kokatu beharko litzateke, alegia, Osakidetzako 2. hizkuntza-eskakizunean.

### Neurri zehatzak

- Plan estrategikoa egokitu eta aplikatzen hasi bitartean, zonalde euskaldunetan (euskaldunen kopurua >%70) urgentziatzeko neurriak hartu behar dira. Honela, kontratazio berri, ordezkapen eta leku-aldaketa guztiak euskaldunen bidez egin behar dira.
- Zonalde euskaldunetan (euskaldunen kopurua > % 70) lehenengo lehentasun-maila duten unitateen derrigortasun-data lanpostuen % 100nari ezarriko zaio.

## Osakidetzaren euskalduntzeko plan estrategikoa: Proposamenak



**297/2010 Dekretua**  
EHAA 219 zk. - 2010eko azaroak 15

HIZKUNTZEN EUROPAKO ERREFERENTZIA MARKOA		B 1	B 2	C 1	C 2
Eusko Jaurlaritzaren Eraginak	Kultura Saria <b>HABE</b>	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
	<b>HAAE - IVAP</b>	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna
	<b>Osakidetzaren Euskal osasun zerbitzua</b>	1. hizkuntza-eskakizuna	2. hizkuntza-eskakizuna	3. hizkuntza-eskakizuna	4. hizkuntza-eskakizuna
	<b>Ertzaintza</b>		Ertzaintzaren 1. HE	Ertzaintzaren 2. HE	
	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saria		Irakaspostuen 1. HE <b>HLEA</b> (Hezkuntzako Langileen Euskara Agiria)	Euskararen Gaitasun Agiria (EGA) Irakaspostuen 2. HE	
	Hizkuntza Eskola Ofizialak	3. maila (Antzinako Ikasketen Plana) Tarteko Maila	4. maila (Antzinako Ikasketen Plana) Maila Aurreratua	5. maila edo euskal gaitasun maila (Antzinako Ikasketen Plana) Gaitasun Maila (C1)	
	Hizkuntza Eskola Ofizialak			Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
	Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Saria			"D" agiria	
	Euskaltzaindia			Euskararen Gaitasun Agiria (EGA)	
	Iparalde Euskararen Erakunde Publikoa				

### Langileen euskalduntzea

Aurrez esan bezala, epe erdi edo luzerako plangintza orokor baten baitan, jada Osakidetzaren lanean ari diren langile guztien euskalduntzea helburu duen plangintza garatu beharko litzateke, helburu eta epe zehatzekin. Kasu honetan ere progresibitatearen printzipioa aplikatu beharko litzateke eta helburu eta epe zehatzak izango dituen plangintza beharko genuke.

Honela, lehenik eta behin, Osakidetzako langileen (ez lanpostuen) zentsu bat egin beharko litzateke beraien euskararen ezagutza zehatza zein den ezagutzeko (Europako erreferentzia markoaren arabera). Behin hori jakinda, langile guztiak euskalduntzeko plangintza progresibo eta iraunkorra jarriko litzateke abian, langileei euskara ikastaroetan parte hartu ahal izateko erraztasun eta pizgarri ezberdinak eskainiz.

Euskara ikasten ari diren langileen lanpostua betetzeko ordezkari euskaldunak kontratatu behar dira eta horrela, zeharka bada ere, finakoak ez diren langileen euskalduntzea ere sustatu.

#### Neurri zehatzak

- Prestakuntzan, lehenik ematea langile euskaldunen euskarazko trebakuntzari eta euskarazko prestakuntza iraunkorrari.
- Beharrezkoa litzateke jarrerak hezteko, langileak sensibilizatzeko eta mota guztietako erresistentziak gainditzeko prestakuntza eta sensibilizazio lan iraunkor eta jarraituak burutzea.
- Garapen profesional altuena lor daiteke euskaraz jakin gabe eta egoera hau irauli behar da. Euskara dakiena saritu behar da eta euskara ez dakiena ezin da saritu. Aitorpen-sistemaren bat garatuko eguneroko lanean euskara erabiltzen duten langileentzat.
- Lehen planak 45 urtetik aurrerako langileei salbuespena eskatzeko aukera ematen zien. Bigarren plan honek ez du jada arrazoi honengatik salbuespen gehiago onartutako.



## Zirkuituak eta espazio euskaldunak (arnasguneak)

Zirkuituen helburua gaurdanik euskaraz artatuak izan nahi duten herritarrei horretarako aukera eskaintzea da. Euskaraz artatuak izan nahi duten herritarrei Osakidetzako zerbitzu guztietan aukera hori eskaintzea da gakoa, maila, atal edo txanda guztietan gutxienez euskarazko aukera bat bermatzea.

Plangintzari dagokionez, noski, denborarekin zirkuitu horiek gero eta zabalagoak egitea litzateke helburua, plangintza estrategikoa amaitzean Osakidetzako maila, atal edo txanda guztiak euskaldunak izan arte.

Zirkuituen aukera trantsiziorako bide bezala ulertu behar da, benetako progresibotasunaren oinarri. Hasiera hasieratik euskaraz egin nahi dutenei eskubidea bermatzen zaie, horretarako egun dauden langile euskaldunen berrantolaketa baten bidez eta denborarekin zerbitzu guzti-guztiak herritarrek bi hizkuntza ofizialetan artatzeko gai izan arte.

Poliki-poliki, langileak euskaldundu ahala, euskaldundutako langile horiek lan eremu edo espazio euskaldunetan txertatu behar dira. Ezin da euskaldundutako langile bat lan-eremu erdaldun batera itzuli, horrela egiten bada denborarekin ikasitakoa galtzeko aukerak biderkatu egiten dira eta hori permititu ezin dugun luxua da.

Izan ere, pertsonak euskalduntzeaz gain ezinbestekoa da espazioak ere euskalduntzea. Espazio erdaldunek pertsona euskaldunak erdalduntzen dituzte eta hori edozein normalizazio prozesutan ekidin beharreko egoera da.

### Neurri zehatzak

- Zerbitzuak hiru taldetan sailkatuko dira:
  - A: Zerbitzuak euskaraz funtzionatu (lan egin) eta atendituko du. Behar duenari, noski, zerbitzua erdaraz eskainiko dio.
  - B: Erdaraz funtzionatuko du. Euskaraz atenditzeko gai izango da.
  - Ø: Erdaraz funtzionatuko du. Ez du euskaraz atenditzeko gaitasunik.
- Zerbitzu hauek zerbitzu mota eta kokapen geografikoaren arabera esleituko dira. Behin zerbitzu edo zerbitzu-atalari hizkuntz kategoria esleitu ondoren, dagokion epealdian zerbitzuak kategoria horretara egokitu beharko ditu bere langileen hizkuntz gaitasuna eta erabilera, mikroplangintzak prestatuz eta aplikatuz.

## Identifikazioa

Prozesu honetan guztian berebiziko garrantzia hartzen du profesional zein erabiltzaile euskaldunen identifikazioak. Aurrez aipatutakoaren ildotik, plangintzaren funtsa ezagutza baino erabilera sustatzea bada, batzuei zein bestei erabil dezaten erraztu behar zaie. Gauza jakina da gutxiagotutako hizkuntza baten komunitateko kideek egunero zer-nolako egoerak bizi behar izaten ditugun eta horrek nola eragiten digun geure hizkuntza hautuan, hizkuntza erabileran. Identifikazioak hiztun komunitateko kideon arteko komunikazioa errazten du, besteak beste, lehen hitza euskaraz egin edo ez pentsatzen ibili beharra ekidinez (horrek suposatzen duen guztiarekin).

Gai hau askok uste dutena baino garrantzitsuagoa da, erabiltzaileei izugarri lagunduko die eta erabilera areagotzea ekarriko du, horrek suposatzen duen guztiarekin (euskaldunon



bisibilizazioa...) eta langileen arteko erabilera ere areagotu dezake. Onurak besterik ez dituen neurria da eta aurreko Jaurlaritzak abiatu eta egungoak garatzeko asmoa duena. Osakidetzan ongi landuko balitz beste zerbitzu publikoetara zein sektore pribatura hedatzeko aukera egon liteke.

#### Neurri zehatzak

- Osakidetzak maila korporatiboko neurriak finkatu behar ditu erabiltzaileen hizkuntza-hautua sistematikoki erregistratu eta errespetatzeko, ahozko eta idatzizko aukera linguistikoak ezberdinduta.
- Honen ondorioz, gaixoak eskatu behar izan gabe, Osakidetzak euskarazko asistentzia bermatu behar dio gaixo bakoitzari, lehen mailatik hasi eta espezialistaraino, horretarako beharrezko diren zirkuituak bermatuz.
- Eskualde batzuetan honezkero egin den moduan Lehen Mailako Atentzioko erakundeek herritarrei jakinarazi eta euren eskura jarriko diete mediku edo pediatra euskalduna hautatzeko aukera.

### Komunikazioak eta hizkuntza-paisaia

Euskaraz artatuak izan nahi duten herritarrei eskubide hori bermatu behar zaie eta horretarako bitarteko guztiak baliatu behar dira. Hizkuntza-paisaian zein komunikazio estandarizatuetan euskarazko aukerak jada bermaturik egon behar zuen %100ean. Hor ez dago baleko aitzakiarik. Gauza bera gertatzen da barne zein kanpora begirako aplikazio informatiko eta webguneekin. Urte hauetan horiek guztiak euskaraz egon behar zuten eta hor ez dago progresibotasunerako edo atzerapen baterako aukerarik.

Aurrez aurreko ahozko komunikazioari dagokionez, aipatutako zirkuituen bidez bermatu behar zaie herritarrei euskaraz aritzeko eskubidea eta poliki-poliki zirkuitu horiek handituz joan.

#### Neurri zehatzak

- Historia klinikoak bi hizkuntza ofizialetan idatziko dira.
- Dokumentazio asistentzialari dagokionez, pazienteei ematen zaizkien idazkiak euskaraz daudela bermatuko da.
- Eguneroko aplikazio informatikoetan euskaraz nabigatzeko aukera egongo da: Osabide AP, Osabide Global, Global Clinic, Naia, Zaineri...



## Zehar-lerrotasuna eta lidergoa

Argi dago, hizkuntza normalizazioa bezala, zehar-lerro izaera duen prozesu bat behar bezala garatu ahal izateko, ezinbestekoa dela erakunde guztirako irismena duen organo nagusietan kokatzea. Horrela, normalizazioa Osakidetzako maila eta estatus goreneko jarraipen batzorde baten eskuetan egongo da. Horrekin batera, euskara-plana erakundearen plan estrategikoan txertatuko da.

### Neurri zehatzak

- Euskara Plana bideratzeko behar diren batzorde teknikoak osatuko dira Zerbitzu-Erakunde guztietan eta baita Erakunde Zentralean ere. Batzorde hauek honako hauen ordezkariak batek osatuko ditu: pertsonaleko zuzendariak, gerenteak, zuzendari medikoak, erizaintzakoak, kudeaketa ekonomikokoak eta Euskara Zerbitzu Korporatibokoak.
- Normalizazioa Osakidetza mailako eta estatus goreneko jarraipen batzorde baten eskuetan egotea. Batzordeko kideak profesional eta kargu gailenak: ospitale handi bateko zuzendari kudeatzailea, eskualde bateko zuzendari kudeatzailea, erizaintzako zuzendaria, euskara-zerbitzuko zuzendaria, giza baliabideetako zuzendaria. Batzordeburua: zuzendari nagusia.
- Langileei normalizazioan parte hartzeko mintegiak (hobekuntza-taldeak, komunikazio-taldeak...) erraztea hezteko prestakuntza berezia ematea.
- Kontzertatutako enpresek euskara plana betetzen dutela ziurtatuko da. Ez da nahikoa kontratuetan hizkuntza ofizialei buruzko baldintzak sartzea, ez bada zehazten nola erabili behar diren hizkuntzok eta ez bada, era berean, erabilera errealean jarraipenik egiten.
- Elkargo profesionalak. Euskararen erabileraren normalizazioan pausoak adostuko dira beraiekin.
- Gaixoen elkarteak, odol emaileen elkarteak eta antzeko eragileak. Euskararen erabileraren normalizazioan pausoak adostuko dira beraiekin.
- Sindikatuen eta Osakidetzaren artean erabilera-itunak egitea sindikatuek afiliatu eta langileekiko harremanetan euskara gehiago erabil dezaten.

## Hezkuntza sistema

Gai hau ere gakoa da. Osakidetza euskalduntzeko plan orok harreman estua izan behar du hezkuntza sistemarekin eta batez ere unibertsitate eta lanbide-heziketarekin. Osakidetza euskalduntzeko langile euskaldunak hortik aterako dira eta ondorioz hori bermatzeko sistema bat eraiki behar da.

Herri bezala onartezina da EHU-n medikuntza ikasi nahi duten ikasle euskaldunek kanpora joan behar izatea, postu horiek ikasle erdaldunei esleitu zaizkielako. Ikasle euskaldunei lehentasun erabatekoa bermatu behar zaie eta ondoren, plazarik bada, gainerakoei eskaini. Jatorriak berdindu, euskara dakienak izango du lehentasuna.





### Neurri zehatzak

- Osakidetzaren euskalduntzean hezkuntzak nolako laguntza eman behar duen aztertzeko lantalde bat antolatuko da.

## Ebaluazio sistema

Prozesua nola doan jakiteko ezinbestekoa da ebaluazio iraunkorra baina hori bezain garrantzitsua da ebaluazio hori Osakidetzak berak ez egitea, alegia, eragile independente batek egitea. Ebaluatzaile hori unibertsiitatea izan daiteke edo horretan aritzen den enpresaren bat, baina hori bezain garrantzitsua da, ebaluazio horretan euskalgintzak parte hartzea, hori izango baita ebaluazioaren benetakotasuna bermatzeko biderik eraginkorrena.

### Neurri zehatzak

- Euskara kalitatearen zirkuituan sartu behar da.

*KONTSEILUko osasungintza lan-taldeak onartua 2013ko irailean*